

Jai eta ospakizunaren Antropologiari buruz zenbait ohar

(Notes on the anthropology of
festivities and celebrations)

Fdez. de Larrinoa, Kepa*
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia
Miraconcha, 48
20007 Donostia

* Eusko Ikaskuntza

Jaiak libertimentu dira. Libertimenduz gain, balore ideologiko, xede politiko eta interes ekonomikoen dramatizazioak dira.

Giltz-Hitzak: Jaiak. Antropologia sinbolikoa. Ospakizuna.

Las fiestas se caracterizan por contribuir a la diversión de las personas. Aunque junto a la diversión también se dramatizan valores ideológicos, intenciones políticas e intereses económicos.

Palabras Clave: Fiesta. Antropología simbólica. Celebración.

Les fêtes se caractérisent par leur contribution à l'amusement des personnes. Bien que, en même temps que l'on divertit, on dramatise également des valeurs idéologiques, des intentions politiques et des intérêts économiques.

Mots Clés: Fêtes. Anthropologie symbolique. Célébration.

SARRERA¹

Ospakizuna, besta, festibala, lehia, jokoa, libertimendua eta jolasa. Antropologi-ikerlanek adierazi dutenez, hok maiz suertatzen dira elkarrekin gertakizun publiko eta kolektibo bat-berean. Darraikionez, zaila izaten da bataz ihardutea besteak kontutan hartzeke. Orduan, analisi antropologikoak ikuspegi eta adierazpide-aberastasuna eskatzen du. Hots, errealitate soziala bezain aberatsa izan behar du ulerpen antropologikoak.

Kongresu honetan Abadi-k antolaturiko Euskal Jokoak daude auzian. Pertsona honek antolaturiko festibalak modu askotara araka daitezke, ildo antropologikoa haietariko bat delarik. Hau da, bertara zuzendutakoaren ezaugarri literarioak arakatzea izan daiteke Abadi-k kudeatutako Jokoak aztertzeko bidea. Beste bat historia dateke, hau da, orduko jai hauen antolaketaren zehetasunak eta gorabeherak bildu eta jakinarazi. Beste bat antropologia. Eta hiru abiabide hauek ez dira dauden bakarrak. Egon ere, ihardunaldi hauetan ageri jarri nahi denez, haboro daude. Antropologiaren barruan ere jaiak ikasterakoan erabil daitezkeen moduak frango badira. Txosten honek jaiari dagokion ezaugarri komunikatiboa azpimarratu nahi du.

Ospakizuna, besta, festibala, lehia, jokoa, libertimendua eta jolasa. Giza-iharduera haue-taz antropologiak zer dioen miatuz gero, gogoetan zabalera eta eritzian askotza behatzen dugu. Txosten honen xedea hauxe da: delako zabalera eta anitza erakustea. Halaber, anali-siaren konplexutasuna.

JAIEN IKERKETA ANTROPOLOGIKOA

*Jai*a berba agertzen denean, berehala *ospakizuna* hitzaren oihartzuna datorkigu burura. Jaiak zerbaiten ospakizuna dira. Modu berean, ospakizuna hitzak *errituala* hitzaren hotsa dakarkigu. Zientzi Sozialetan murgilta gero, honakoa ikusten dugu: erritualaren ikasketak Emile Durkheim-en talde-irudigintza noziora gakartza.

Erritualek dramatizaturiko irudien eta estetikaren bidez identitate sozialak plazaratzea da Durkheim-en soziologiarekin ikasi dugun ondorioa. Jaietan jende-taldeak agertzen dira, jende-talde zehatzak, identifikagarriak. Bide batez, taldekatze hau modu berezian agitzen da. Hau da, jendeak kokapen ezberdinetan, ordenaziopean banatzen dira espazio erritua-lean zehar. Ospakizunetan, orduan, jendeen taldekatzeak eta taldeen sailkatzeak burutzen dira. Arestiko bi ideio oso kontutan hartzekoak dira jaien ikasketa antropologikoan.

Hona heldurik, jaien miaketan azalera eta edukiera bereiztu behar direla esan beharrean gaude. Taldekatze eta sailkatze soziala zer-nolakoa den edukiaren esparruan genuke. Azaleraren esparruan, ordea, jaiaren morfologia eta ekintza-jarraia. Antropologoak arlo hone-tan dihardunean, jaiaren deskripzioari ekiten dio. Jaiaren agerturiko sekuentziaren zehetasunak oro, beren konbinaketa eta lotura, hauek danak jakitea premiazko eta lehenbiziko pausoa da, jaiaren edukierarekin batera, jaiaren zertan den ezagut dezagun.

1. Saio honetan aurkeztutako ideiak eta argudioak modu zabalago eta zehatzagoaz garatu ditu egileak jarraiko azterlanetan: *Mujer, Ritual y Fiesta: género, antropología y teatro de carnaval en la sociedad rural pirenaica*, Ed. Pamiela, Pamplona, 1997; *Nekazal Gizartea eta Antzerki Herrikoia Pirinioetako Haran Batean*, Eusko-Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, San Sebastián, 1993; *Mendebalde Urrutiko Euskal Jaiak: ospakizuna, errituala eta histo-ria gaurko teoria antropologikoaren harira*, Eusko Jaurlaritzako Argitarapen Zerbitzua, 1992.

Beraz, jaiak eta ospakizunak hiru funtsezko ezaugarri dituzte: bata, forma plastiko-estetikoa; bigarrena, besta-osagarri sintasia eta egitura; eta hirua, talde sozialei buruzko irudigintza eta saillapena. Badute, baita ere, beste ezaugarri garrantzidun bat: errepikapena. Jaiak eta ospakizunak denboran zehar errepikatzen dira, datak zehatzak eta bereziak direlarik. Orduan, jaiaren noiztasuna eta maiztasuna oinarritzko kategoriak dira ospakizunaren teoriagintzan.

JAIAREN DIMENTSIO ETA ESPARRU ANALITIKOAK

Jaiak sinboloz jositako gertakizun-sareak direla baieztatzen da. Bestela erranik, azterlari frangok diote ospakizunak esanahi desberdinez eraikitako edifizio kulturalak direla. Sinbolo hauek isolatu eta, banan-banan nahiz elkarren nahasketan, euren esanguretan murgiltzea da antropologoaren betebeharra. Dimentsio sinbolikoak gain, kogniziozko, psikezko, ekonomiazko, politikazko, eta boterezko esparruak aurkitzen ditugu jaietan.

Jaietan parte hartzeak partaideengan sortarazitako zirrara eta hunkipenak ikertu dituzte antropologoek. Hau da, gizabanakoen barnean bizi izandako esperientziak eta subjektibitateak ikertzen dira. Hauxe da esparru psikologikoa. Badago esparru kognitibo inportante bat. Alegia, jaietan eta ospakizunetan mundubisioak, munduari buruzko interpretapenak bideratzen dira. Badago, egon ere, aspektu politiko handi bat. Honez gero aipatua dugu nola agertzen diren jaietan giza taldeen arteko loturak eta aldeak, nahiak eta lortu-ezinak.

Jaiak eta ospakizunak esparru instrumental batetan zehar ere higitzen dira. Kasu honetan jaiaren tresna da. Modu honexetara ikusiz gero, jaiak jokalariei sozialen agentziari eusteko kirtena da; erran nahi baita: pertsonak ospakizunaren egitura sinbolikoak eta praktikak erabiltzen dituzte helmuga sozial, ekonomiko, pedagogiko, ideologiko edo politiko bati atxekitzeko asmoz. Jaietako sinboloak, orduan, esankorak eta komunikatiboak izateaz gain, politikak dira, zeren berak jendaurreratzeak berez badarama aurretik planifikaturiko diseinua. Helmuga zehatz bati heldu nahi dion helbide jakina da, hain zuzen ere.

Bestalde, jaiak antzezki-dimentsioa darie. Parte hartzaileek paperak jokatzen dituzte. Antzeztokian balira bezalako jokalariei bihurtzen dira, aldeztu aurretik emandako eta ikasitako gidoi bati atxekiz. Pertsonak transformatu dira, soinu, zomorro, jantzi eta egintzen bidez, beren egunerotasunetik zeharo irtenda, osterantzeko nortasunetan sartuz. Pertsonak ezezki, besta-espazioak ere itxuraldatzen dira, argiak, apainketak eta gainontzeko osagarri estetikoak direla medio. Gauzak honela ikusita, jaiak eta ospakizunak mundu eta denbora arruntetik at dramatizatzen diren etzenifikazioak dira.

Jaiak ezagutzeko ideologikoa plazaratzen dituzte. Hau da, antropologo batzuk argudiatu dute ospakizunak gizartearen ezaguera ideologikoa eta pedagogikoa ereiteko hazi-mementuak direla. Antropologia-moeta honen aburuz, jaiak gizabanakoen eta talde sozialen arteko hartu-eman egokiaz dihardute. Baieztatzen hau gehiago zehaztu dute: jaiaren antolatzaileen ustetan egokia denaren, eta ospakizunera joaleen eritziz egokia denaren, arteko harreman tirabiratsua ikertzea da jaiaren esparru ideologikoa.

Ondorioz, jarraian aipatzen ditudan bost ikerrarloen artekotasuna baliotsua da. Ikerrarloak hauek dira: jaiaren, ospakizunaren, jokoaren edo lehiaketaren antolatzaileen egitaraua eta xedea; gertakizun kulturalaren arizale edo aktore zuzen eta bizkorak; gertakizun kulturean kurioz, ikusmiran edo audientzia gisa doazen pertsonak; gertakizun kulturean jendaurreraturiko sinboloen erranahiak; gertakizun kulturalak jasotzen dituen erantzunak. Jadanik aipatua: bost hauen artekotasuna ikertzea gako da jaiaren ikasketa antropologikoa.

Halakoxe miaketan sartuz gero honako ondorioa ateratzen dugu: bilakera sozial, politiko, ekonomiko eta kultural baten barruan asmatu, jazo, hedatu, onetsi, errefusatu edo alboratu egiten diren gertakizun kulturalak dira jaiak. Jaiak, ospakizunak, eta oro har ekoizpen kultural guztiak, ikertzerakoan erabiltzen den beste nozio bat *testuarena* da.

Jaiak testutzat jotz gero, hona hemen antropologoak dagizkien zenbait galdera: Nor da testuaren egilea? Nor da testuaren jabea? Nola osatzen da testua? Nork irakurtzen du testua? Hein handian, testuaren analogia aukeratu dutenek hermeneutikaren pentsabideak hautatu dituzte,ifikantzak bilatuz, esanahiak interpretatuz. Bestela erranik, testu bat dagokion tamainan ulertua izan dadin, barruko kode kultural bereziak interpretatu behar dira.

Oraingo antropologia sinbolikoari kasu eginez gero, jaiak balore kulturalen erritualizazioak dira. Alegia, jaiak lengoia berezi baten bidez ideiak eta mezuak hedatzeko gai dira. Honetaz, gauzak esateko moldeak dira jaiak. Clifford Geertz-en, Victor Turner-en eta Frank Manning-en izkribuei jarrai, jaiak kontestuak dira. Areago, bizitzaren arlo politiko, sozial, ekonomiko, sinboliko eta kulturalak nabarmen agertzen dira kontestu hauetan. Idazle hauen eritiz, ospakizun festiboak iharduera kulturalen jenero bat osatzen dute.

Jenero kultural zentzu honetan ulertu behar ditugu Abadi-ren Euskal Jokoak. Areago, Europako historiaren zedarrietan ongi finkatutako jenerotzat jo behar dugu. Errankorrak dira, alde batetik, jeneroaren handahemengo bultzatzaileen etorki soziala, eta beste alde batetik, euren amankomuneko ahalegina justifikatzen zuen arrazoinamendu filosofikoa. Kulturaren ulerkuntza berezia darie Euskal Jokoen antolatzailei eta jaiari berarai ere bai. Honek erran nahi du Euskal Jokoak aukerazko jaiak zirela. Hau da, kulturari buruz zeuden nozioen artean, eta kultura publikoki dramatizatzeke zeuden ekinbideen artean, baten hautua egin zuten. Oro har, herri xumearen kulturaren, eta jende eskolatuen kulturaren, arteko harreman berezi bati ekin zioten.

JAIK ETA OSPAKIZUN ERRITUALAK

Jaiak ospakizun erritualak dira. Errito baten aitzinean dagoenean zenbait aukera izaten ditu antropologoak. Peter McLaren-ek bere ikerketari egindako sarrera teorikoan erritualaren zentzu hertsia eta erritualaren zentzu irekia elkarrekin bereizten ditu². Erritualaren ezaugarri hertsia errito bakoitzaren berekotasunetik dator. Halaber, erritualaren zentzu hertsia erritual bakoitzak beteriko funtzioetatik dator. Erritualaren zentzu irekia, ostera, erritualarekin batera harremandurik garatzen den kanpo-prozesua da.

Jai erritual bederari dagokion berekotasunaren ikerketan jaiaren morfologia arakatzen du antropologoak. Abiapuntua honakoa da: ikergai den jaiak badu bere azalera, delako azalera mezuaren, zentzumenaren eta erranahiaren gidatzailea delarik. Van Gennep-en lana ikuspuntu honen adibide ona da. Jaiaren morfologiari begiratzehardute honetan jai edo bestan jendaurreratzen diren sinboloekin topo egiten dugu. Erritualak sinbolo elkarteak eta sareak direla azpimarratu duten antropologoaren artean Victor Turner oso eragile suertatu da. Beste ikertzaile batzuk funtzio sinbolikotik haratago joan dira, jaiak, bestak eta ospakizunak oro tresna metakomunikatiboak direla erranez. Ildo honetatik etorri da Gregory Bateson-en

2. Ikus *Schooling as a Ritual Performance: towards a political economy of educational symbols and gestures*, London and New York: Routledge and Keagan Paul, 1986.

idazlana. Arestikoak erritualaren zentzu hertsuari begira landu izan diren etsemplu bakan batzu dira. Jakina, modu gehiago eta bestaldekoak, izan ere, badira,

Baita ere, jaiaren ezaugarri irekia dago. Esparru honek aspektu fenomenologikoak eta jokalaria sozialen agentzia edo eskuhartzea ikertzen ditu. Bide honi ekin dioten antropologoek jarraikoa erakutsi dute: jaiak gizarteko pertsonen izakera kulturalan, antolakuntza sozialean, eginbide ekonomikoan eta portaera etikoan, bestean beste, eragiteko bide garrantzidunak dira. Uste honetan dabilzanek pentsatzen dutenez, botere eta pribilegioko erlazio zabalagoek argitzen dute jaiaren logika.

Maizko esana da antropologian, bestagiako jokakizunak endelegatzerakoan, eguneroko portaerak ezagutzea premiazkoa dela. Halako konparazioa eginez gero, *aldeak* agertzen zaizkigu. Aldearen kalitate edo nolakotasunari kasu egin behar diogu. Honetaz, eguneroko portaerak indartuagoak edo ihartuagoak agertu daitezke jaigiroan. Edo iraulita, alegia, hantkaz gora. Edo gerta daiteke eguneroko moldeak eta itxurak ospakizunean ez astintzea, eta bai ordea balirazko hartu-eman soziokulturalak errepresentatzea. Edo hirurok eta gehiagoak elkarnehastea. Jaigiroak osatzen dituen konbinazioak ugariak baitira, hots.

Alexander Falassi aldetasunaren errepresentazio estetiko-morfologikoak miatu eta sailkatu duen azterlaria da. Modu honetara sailkatu ditu jaiak: garbiketa edo zuriketa erritokizunak; pasarritoak; iraulketa-erritoak; erakuts-erritoak; kontsumo-erritoak; drama erritualak, truke-erritualak; eta lehiaketa-erritualak³. Lehen erran bezala, jokaera bestagirodun bat ez da normalki bornu edo marko erritual bat-beraren barruan agitzen, baizik eta batetan baino gehiagotan zehar mugitzen da usu.

Jaiak ondo pasatzeko, elkarrekin libertitzeko kontestua dira. Gauza haboro ere bai. Zeren sinboloz eta metaforaz burututzen baitira, anbigoa dira oso. Honexetan datza haien indarra eta ahalmena: euren anbigotasunean, hots. Orokorrean, jaigiroko gertakizunen sinboloek pertsonen arteko hartu-eman soziokulturalaz zerbait mezutu, komunikatu nahi dute. Victor Turner-en ustetan, anbigotatea *egitura inposatze/egitura deusezte* deritzon harremanetik dator. Alegia, bestagiakoan egitura sozialaren kontrako ezaugarriak garatzen dira, berauek egitura sozialarekin parez pare garatzen direlarik⁴.

Beste alde batetik, Sherry Ortner antropologoak bestelako eskema garatu du sinboloen antibiotasunetik argia ekarri asmotan. Ortner-ek dioenez, bestagiakoan eta erritokizunetan hiru modutako sinbolo-taldeak agertzen zaizkigu: giltza sinboloak edo ikur maisuak; gizarteko sustrai-paradigmak; eta kode kulturalak⁵. Beraz, jaiaren ikerketa antropologikoan sartuz gero anitz azterbide aurkitzen ditugu. Azterbide komunikatiboa bat da. Jaiaren sinboloak bil, sailka, analiza eta interpretatzea dugu ibilbide halako ekinaldian.

Ospakizunak errepresentazio kulturalak dira. Baita ere, so eta ñika sozialak. Ospakizunaren ikerketa antropologikoan honako ezaugarria gako da: ospakizunak eta jaiak paradoxak dramatizatzen dituzte. Izan dadin eguneroko bizimoduan den ezaugarri bat ospakizunean intensifika edo areagotzen dela. Izan dadin eguneroko ezaugarri delakoa jaigiroan irauli egien dela. Izan dadin eguneroko ezaugarria bestan agertzen ez dela, baizik agerturiko

3. Zehetasunak Time out of Time, University of New Mexico Press, 1987, bere liburuan ikus daitezke.

4. Ikus The Ritual Process, Chicago: Alding, 1969.

5. Ikus "On Key Symbols", American Anthropologist 75: 1338-1346, 1973.

guztia mundu alternatiboa dela. Dena den, hiru kasuotan, banan-banan edo batera suertaturik, *kontrastea* da garrantzidun, eta ikerketa antropologikoaren abiapuntu. Orduan, kontrastearen nolakotasuna ikergaia da, berau baita gizartearen termometro zorrotza.

Bukatzeko, zilegi bekit Abadi-ren Euskal Jokoak Kongresu honetarako idatzi diren txostenak irakur eta hemen aipatutako kontrasteen zehar arraleit ditzagun eskatzea. Ordukoxe gizartea zertan zen, eta Euskal Jokoak izeneko jaiek gizarte hartaz eta gizarte hartarantz zer projekta edo hedatzen zuten, hots, da dagidan galdera.